

EPE MOTZERAKO ZEPILOA

Gure asmakizuna, Telmok proposatu egin du. Telmo, nekatuta dago hilabeteen behin pasta berri bat ireki beharra izatea. Oso desatsegina egiten zaio pasta amaitzear dagoenean, egin behar duen indarra gelditzen den pasta gutxi hori atera ahal izateko. Gainera, Galder oso alferra da, eta aipatu digu, pereza ematen diola egunero pasta eskuilan jartzea (batzuetan hortzak bakarrik urarekin garbitu ditu, pasta erabiltzeak pereza suposatzen diolako). Asmakizun hau oso erabilgarria izango litzateke, Galder bezalako pertsonentzat.

Gure asmakizuna, hortzetako eskuila bat da, baina ez hortzetako eskuila arrunt bat, kasu honetan, hortzetako eskuila normal batek dituen filamentuak, pasta masa elastiko batez osatuak daude. Gure hortzetako eskuilaaren burua astero aldatu beharko da, filamentuak pixkanaka desgastatzen joaten direlako, eta pasta bukatzen joaten delako. Asmakizun honek duen abantaila handienetariko bat, bidaietara eramateko modu oso eramankorra dela da, non aurretik pasta eta eskuila eraman behar zenituen baina orain dena asmakizun batean bakarrik eraman dezakezu. Horrez gain, ergonomikoa izango da, erosotasuna bilatzeko.

Gure asmakizunaren izena “Zepispeed” da. Hasiera batean, inbertsioa baxua izango da, beraz, izaera juridikoari dagokionez, Sozietate Mugatu bat izango gara. Baina, proiektua ondo baldin badoa, sozietate anonimo bihurtuko ginateke.